

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urtean Zeharreko 26. Igandea

2009 Irailak 27 (B urtea)

Patxi Otamendi

Zenbakiak 11, 25 29

Santiago 5, 1-6

Markos 9, 38-43. 45. 47-48

- Gaurko ebanjelio testua zortzi esaldi islatu eta desberdinez osatua dago. Beste ebanjelioetan ageri denez esaldi horik leku desberdinetatik hartu eta batu egin zituen Markosek

Baliteke gaurko pasartean Markosek ironia utzi izana. Aurreko igandeetan ageri zen Ikasleek ez zutela Jesusen asmoa eta bidea jarraitzeak zekarren jasan beharrea ulertzen. Beraiek Jesusen inguruan “hurbilekoenak” sentitzen ziren, benetako partaide, beste guztiak barruti berezi horren “kanpoko” bezala hartuz. Euren ustez, beraiek ziren Jesusen “kluba” osatzen zutenak.

Hara nola, deabruak askatzen zebilen gizon ezezagun bati eskatzen diote ekimen hura uzteko; berari ez zegokiola horrelakorik “taldekoa” ez izateagatik. Markosen zein Lukasen ebanjelioetan Joan apostolua da Jesusi jakinarazten dioena gizon harekin duten eztabaida.

Garai haietan uste zen deabruak gaixotasunak eta desorekak sortzen zituela gizakiengan, eta orduko medikuntzaren zereginetako bat deabruak menderatzea eta pertsonaren barrutik ateraraztea zen.

Ironia litzateke gizon hari Jesusen “esparruko lanetan” ez zebilela leporatzea, eta bien bitartean Ikasleak nahiko lekuz kanpo aritzea (lehen postuak ziurtatu nahian baitzebiltzan). Testuak dio gizon haren ekintzak “Jesusen izenean” eginak zirela. Hau da, Jesusek mugitua, motibatua. Edo Jesusek egingo lituzkeenak, baina orain gizonak borondate oneko ordezkartzan egiten ziharduena.

- “*Gure kontra ez dagoena, gure alde dago*”. Gaur bizirik dugun gaia: hainbat ez-elizkoi benetako Erreinuaren eraikuntzan sumatzen ditugu, beraien bitartez Kristo lanean ariko balitz bezala. Batzutan uste dugu gureak ez direlako ezin direla gure aldeko izan, eta kostatzen zaigu euren ekimena onartzea. Argitu beharra dena zein neurritan dabiltzan Jesusek nahiko lukeen bidetik.
- “*ontziska bat ur bada ere ematen dizuen inor ez da saririk gabe geldituko*”. “*Mesiasen jarraitzaile zaretelako*”: babesgabeen aurki daitezkeen sinestunak onartu eta laguntzen dietenei, harrera horren balioaz mintzo zaie testu honetan.
- “*hobe duzu*”. Esaera multzo hauetan sinestunak “iraindu” edo “mindtzen” dabiltzanei esaten zaie hobe luketela erabiltzen dituzten oztupoak alboratuko balituzte.

“*hobe luke errotarri bat lepotik lotu*”. Garai haietako Galileako inguruko herriek beren erdigunean errotarri bat izaten zuten olibak txikitu eta olio lortzeko. Etxeetan ere izaten ziren errotarri txikiagoak, olibondoak ia nonahi eta bizibide bilakatuak zirelako. Gainera harri basaltiko sendoaz erabiltzen ziren eraikinak.

Esaera hauek beste bi ebanjelistek ere aipatzen dituzte: Mateok eta Lukasek. Ziur aski,

Ebanjelioetan Maisuak esandako esaldi gogorrenetakoak badira ere, ez dira zigor-mehatxua; kaltegarri dena gainditzeko eskaera trinkoa baizik. Gorputzaren hiru zati garrantzitsuak azpimarratzen dira: eskua, oina eta begia. Baina Judutarren artean mutilazioa ez zegoen onartua, beraz ez litzateke zentzuzko Jesusek konponbide hori eskatzea.

- Testu honen argira, kristau elkarteetan hausnar genezake zein oztopoak alboratu edo gainditu behar ditugun. Zertan beste batzuei bide ixteko arriskua dugun: noraino izan gaitezkeen beste batzuentzat oztopo. Kristauen aniztasuna zabala dela eta, oso tentuz argitu beharko dugu zer ematen dugun onartezintzat gu bezalako ez diren beste kristauengan.